

# IBARBIA-SAGARRA ERREZILEN



**HERRIKO BASERRIETAN ERREZIL-SAGARRARI BURUZ  
2015EAN EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK**

Iñaki Lurrebaso Biteri



ERREZILGO  
ERREZIL SAGARRAREN  
ELKARTEA  
IBARBI SAGARRA

# **IBARBIA-SAGARRA ERREZILEN**

**HERRIKO BASERRIETAN ERREZIL-SAGARRARI BURUZ  
2015EAN EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK**

Iñaki Iurrebaso Biteri

- Argitaratzailea: *IBARBI Errezilgo Errezil sagarraren kultur elkarte*
- Egilea: Iñaki Iurrebaso Biteri
- Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
- L.G.: SS-1175-2016
- Inprimaketa: ANTZA

Ikerketa gauzatzeko ezinbestekoa izan da hainbat lagunen parte hartzea:

- Galde-sortak baserritarrengana helarazten eta erantzunak jasotzen aritu dira Jose Antonio Labaka, Bittor Astigarraga, Susana Gonzalez, Iosu Galarraga, Jone Irulegi, Gorka Tolosa, Joxeramon Agirre, Arrate Otaegi, Iñaki Aiertza, Maria Jesus Salsamendi eta Ibai Arakistain.
- Erantzunak informatizatzen aritu dira Iosu Galarraga eta Ana Aizpuru.
- Datuak interpretatzerakoan oso baliagarriak izan zaizkigu Aitor Etxeaundia frutagintzako teknikariaren eta Unai Agirre adituaren aholku eta iradokizunak.
- Testua Josune Zabalak zuzendu du. Berak idatzi du, halaber, Ibarbi elkartearen sarrera.
- Argazkiak Atala Kultur Taldeak eman ditu.

## Aurkibidea

<b>Sarrerak</b> .....	7
<b>1. Errezilgo sagasti eta sagarrondoak</b> .....	13
Sagastiak eta sagarrondoak Errezilen. Oinarrizko zenbakiak .....	14
Ibarbia ez beste barietateak Errezilen .....	16
Sagasti handiak eta txikiak .....	17
Sagasti ustiaketaren arduradunak. Sexua eta adina .....	18
Sagasti ekologikoak eta konbentzionalak .....	19
Testuingurua (I): bestelako jarduerak sagastiak dituzten Errezilgo baserrietan ....	20
Testuingurua (II): sagastiak dituzten Errezilgo baserriak, jardueraren arabera .....	22
<b>2. Ibarbia-sagarrondoenezaugarriak</b> .....	23
Antzinatasuna .....	24
Txertaka motak .....	25
Mentuen jatorria .....	25
Sagarrondoaren formazioa .....	26
<b>3. Sagastien zainketa</b> .....	27
Inausketa eta udako kimaketa .....	28
Ongarritzea eta fitosanitarioen erabilera .....	29
Hainbat tresnen ezagutza eta erabilera .....	30
<b>4. Uzta eta bilketa</b> .....	33
Dena edo gehiena biltzeko ohiturari buruz .....	34
Uzta onena .....	35
Lurretik bildutako sagarrak eta kolkora bildutakoak .....	36
2012 eta 2013ko uztak kilotan .....	37
Errendimendua (kg/ha) .....	37
Balio ekonomikoaren kalkulua .....	38
<b>5. Elaborazioa eta salmenta</b> .....	39
Elaborazioa .....	40
Salmenta .....	42
<b>6. Etorkizunari begira; Errezilgo Ibarbia-sagarra bultzatzeko bideen eta elkartearen inguruan</b> .....	43
Sagastien etorkizuna, sagargileen iritziak .....	44
Errezilgo Ibarbia-sagarra bultzatzeko premien inguruan .....	45
Ibarbi elkarteari buruz .....	48
<b>Metodozko oharra</b> .....	51
<b>Parte hartu duten baserriak</b> .....	61





### Errezilgo Udala prest dago Errezil sagarraren sustapenean laguntza eskaintzeko

Gurea herri txiki eta malkartsua izanik, ez da erraza bertan bizimodua ateratzea, herritarrok ondo dakigunez. Baina Errezilek badu herri gisa ospea ematen dion tokiko produktua, herriaren izen bereko sagar barietatea: Errezil sagarra, edo Errezilen bertan Ibarbia bezala ezagutzen dugun sagarra. Sagarra munduko fruitu ezagunena eta zabalduena da, klima eta lurzoru askotara egokitzeko gaitasunaren, kalitatearen, elikadura balioaren, balio terapeutikoaren eta bere bidez lor daitekeen produktu sorta zabalaren ondorioz.

Gaur egunera arte iritsi diren tokiko sagar barietate ugarien artean, Errezil sagarra nabarmentzen da, tradizioz Gipuzkoako sagar onentzat jo izan dena. Euskal Herriko ezagunena eta ugariena da eta bere zapora bikaina asko estimatzen da. Sagar barietate hau ehunka urtez Errezilgo eta inguruko baserrietako sagastietan ekoiztu da eta ekoizten da. Barietate zaharrenetarikoa da, kolore berde-horixka du, neurri ertaineko alea eta itxura nahiko zapalekoa izaten da. Negu betean heltzen da eta orduan gomendatzen dute jatea. Errezil sagarra mahairako sagarra da, fresko edo erreta jateko. Gozogintzarako oso estimatua da, baita sagar-gozokia, konpotak, marmeladak eta fruta pureak egiteko ere.

Euskal Herrian, sagarrak fruta-arbola nagusia izaten jarraitzen du eta, XVIII. mendetik aurrera sagar ekoizpenak beherakada handia izan zuen arren, gaur egungo ekoizpen aurreikuspenak onak dira. Merkatuan sagar eskaintza askotarikoa den arren, kontsumitzaileek mahairako kalitatezko sagarrak eskatzen dituzte, adibidez, euskal baserrietan beti ekoiztu izan den Errezil sagarra. Beraz, herriaren bereizgarri izan daitekeen tokiko produktuak behar du bultzada eman eta ezagutaraztea. Poztekoa da, gainera, herriko sagar ekoizle gehienak etorkizunari begira baikor daudela ikustea. Konpromisoa baitute aurrera begira norbere etxeko sagastia zaindu, mantendu eta sagarra ekoizten jarraitzeko. Zenbaiten kasuan, baita ekoizpena bera areagotzeko ere. Noski, sagarra ekoizteaz gain, produktuari irtenbide duina emateko aukera ere bermatu behar da, eta horretarako garrantzitsua izan daiteke Errezil sagarraren berezitasunak eta kalitatea nabarmentzea.

Errezil sagarraren barietateak geure herritik kanpo ere badaudenez, herriko sagarraren izendapen edo marka berezitua sortzeko beharra partekatzen du Errezilgo Udalak sagar ekoizleekin. Bide horretan, garrantzitsua izango da Errezil sagarraren bueltan egun egiten diren ekintzak indartzea eta oso egokia iruditzen zaigu ekoizleek bat egin eta lanerako elkarte bat sortu izana. Sagar barietate hori, geure arbasoek egiten zuten eran, banan-banan kolkora bildu eta aukeratu egiten da, kontsumitzaileari sagarrak onena eskaini nahian, ekoizleek kontu handiz eginiko lanaren fruitua baita.

Gure kasuan, herriak duen produktu bereizgarrietako bat da Errezil edo Ibarbia sagarra. Azal gogorra eta latz samarra du, eta, zaporea, berriz, gazia du Errezilgo Ibarbia sagarrak. Barietate ezagutarazteko lan garrantzitsua egin dute *Ibarbi Errezilgo Errezil sagarraren elkarte*a osatzen duten kideek. Sagastien errolda eta diagnostikoa egiteaz gain, barietatek identifikatzen, formazioa sustatzen eta promozio ekintzak bultzatzen dihardute. Egiten ari diren lanaren garrantziaz jabetuta, Errezilgo Udalak babesa eta euren egitasmoetan laguntzeko prestutasuna agertzen die. Herriko sagar barietatearen sustapenak herriari eta herritarrei eragin diezaiekeen onuraz ohartuta, ezinbestekoa iruditzen zaigu udalak ere bere konpromisoa agertzea. Hargatik, Errezilgo Udalak eskura dituen baliabideak *Ibarbi Errezilgo Errezil sagarraren elkarte*-ren zerbitzura jartzen ditu.





### Eskerrak sagar urtiai!!

Hernion behera parapentean nola, halaxe begira jarrita gaude geure herriari, goitik behera begiratzeak ematen duen talante lasaitik. Hara, haruntz edo honuntzaxeago ageri da beti sagarra! Denboran atzera eginda, gaurko paisaiaren argazki bera aterako ote litzaikekeen pentsatzen jarri gara. Erantzun azkarra emango digu errezildar askok. Gaur ikusten denak ez du lehengoaren tankera handiegirik.

Sagarrak gure lurretan hartzen zuen lekuari begira, Euskal Herrian, 1960ko hamarkadan jo omen zuen lurra sagar landaketak: pinudiak jarri ziren sagarraren orde, eta sagar gaixotasunen izurriteek, klima aldaketak eta sagarrondoak landatu ez izanak ekarri omen du sagarraren galera. Orduz geroztik indarra asko galduta ibili bada ere, Errezilen beti eman izan diegu garrantzia bertako sagar klase ezberdinei, eta bereziki gure lurretan sortuak diren Ibarbia (Errezil, errege edo azaro sagarra) eta Mendiolari.

Sagarraren gainean ikerketa gutxi eginda badago ere, badakigu aspaldiko fruitua dela. “Sagar” hitza aurrenekoz idatzita 1089. urtean agertzen dela dio Euskal hiztegi etimologikoak, eta arabierako “sagar” hitzetik eratorritakoa izan daitekeela (“zuhaitz” esan nahi du arabieraz). XIV. mendean bale-arrantzara joaten ziren marinelek euren itsasontzitan zeramaten edaria sagardoa omen zen, baita ez oso urrutiagoko garaietan ere. Euskerazaintzaren edestia (VII)-n jasota dago hauxe: *“1770’garren urtean berreun toneladara iristen ez ziran barkuak, ona zertzuk eramaten zituzten Marinako Agintariak ziotenez: 230 kintal galleta, 60 sagardo barrika, 12 ardo barrika, 12 barrika baba, bakallau sikua eta sardiña zaarrak...”*. Sagarra zaindu eta merkaturatzea, sagardoa egin eta banatzea... euskal ekonomiaren oinarrietako bat izan da. Euskal paisaian, jateko ohituretan, kulturaren eta ekonomian pisu handia izan du, ezbairik gabe. Egiten eta bizitzen jakiteko modu baten berri ematen digu sagarraren gora-beherei begira jartzeak.

Errezilen Atala kultur taldeak 2008an egindako ikerketan ere horixe agertzen da. Baserriaren sostengua izan da urte askotan, sagarra. Baserriko ekonomiaren oinarrietako bat. Ibarbia sagar asko saltzen zen Errezil inguruko azoketan bertakoentzat (Azpeitia, Tolosa, Elgoibar, Donostia), bitartekariei kanpora eramateko ere bai, baita urrutiagoko hiruburuetan ere (Gasteiz, Bilbo eta Iruñea). Bi hauek orduko aitorenak dira: *“Urte batian Bilboa 100.000 kilo sagar baño geio bialdu zian. Bi ganbioi tontorreaño beteta!”* eta *“Zenbait basarritan 30.000 kilo Ibarbi sagar bildu zan urte batzutan”*. Atera kontuak sagar landatzeak, zaintzak, biltzeak eta merkaturatzeak nolako mugimendua zuen garai hartan. Iraupen luzeko sagarra, mahairako, postretarako edo sagardotarako... sagar bikaina eta preziatua izan da herrian eta kanpoan Errezil sagarra.

Orduz geroztik herritarrok Ibarbia sagarrari eutsi egin diogu, etxerako fruitua jasotzeko bada ere; azoketan saltzen jarraitu dutenak ere izan badira. Herriko *“Errezil azoka”* elkarteko emakumeek azken urte hauetan Errezil sagarra bultzatzeko egin duten ahalegina aipatzekoa da, baita Atala Taldeak egindako kultur lanak ere. Errezilen arnas berritzen ari da sagarra, eta horren erakuslea da oraintsu sortu berri den *“IBARBI” Errezilgo Errezil Sagarraren kultur elkarte*. Zertarako? Hiru ideia nagusi hauek aurrera eramateko:

- Errezil sagarra landatzen hasi eta gure eskuetara iritsi artean egiten diren lanak, zaintza-teknikak eta bizi ohiturak, festak... Jakintza aberats hori gure arbasoengandik jaso eta zabaltzea.
- Jatorrizko Errezil sagarraren ezaugarriak zein diren ezagutzea; jatorrizkoa bultzatu eta indartzea.
- Errezil sagarraren zaintzari eta merkaturatzeari buruzko formakuntza bultzatu eta kanpoan ezagutaraztea.

Horiexek dira elkartearen hiru egiteko nagusiak. Herritarrok gogotsu ekin diogu lanari, eta liburu hau da, besteak beste, elkartearen fruitu emankor bat.

Edozertan hasterako, Errezilen Ibarbia sagarrarekin zertan garen jakitea beharrezkoa zela irizita heldu zitzaion ikerketari, eta handik ateratako informazioa da hementxe jaso dena. Errezilen sagarrondoak ditugun ahalik eta baserri gehienetara iristea eta informazio osatuena jasotzea nahi izan dugu hasieratik, eta sagarrondoak ditugun 86 baserriren informazio zehatza eskuratu da. Gure kalkuluaren arabera, sagastia dugunon bi herenak (%66,2) erantzun diogu inkestari, beraz, kalitate handiko lagina osatu dugu gure parte hartzeari esker.

Datuak jaso nahi izan dira Errezilgo sagar kopuruari buruz, sagarra zaintzeko moduei buruz, uzta eta bilketa ohiturei buruz, herrian sortzen duen ekonomiari buruz... Batzuk esate aldera: 2015ean, Errezilen 11.500 sagarrondo daude gutxi gora-behera. Horietatik erdia baino gehiago dira Ibarbia. Ia 11 Ibarbia-sagarrondo daude pertsonako. Sagasti handi gutxi eta txiki asko. Sagasti gazte samarrak, erdia baino gehiago hogeitaz azpikoak eta patro frankodunak. Sagar batzuk biltzen dira lurretik, besteak kolkotik... Sagasti jabe gehienak, gaur eguneko, baserrietik bizi ez direnak. Sagardotegiei saltzen zaie sagar gehiena (%71), eta gero, azokan edo etxetik erosleari (%33). Bostetik bi etxetan egiten da (gehienetan) etxerako sagardoa. Dultzea eta konpota ia etxe guztietan eta batzuek gainera saldu... Batez beste, sagarrak herrira urtero ekartzen ditu 138.000 euro.

Etorkizunari begira jarrita, inkestari erantzun diogun gehienok pentsatzen dugu indarra hartuko duela sagarrak, ekoizpena ugartu egingo dela. Sagarraren munduan sakontzeko, dena dela, ikusten dira oraindik ase gabe ditugun behar batzuk: formazio tekniko (sagarra landatzetik hasi eta jaso arteko zaintza-teknikak), sagarrak egoki merkaturatzeko bitartekoak lantzea, eta Errezilgo sagarra babesteko duen marka sortzea. Horiexek etorkizuneko hiru erronka garrantzitsuak.

Ikerketa honetan parte hartu duten datu biltzaile, datu emaile, aztertzaile eta diru-laguntzailerik gabe ezinezkoa izango zen honaino iristea. Herritarrok, udala, Urkome, sagarraren ingurumarian lanean ibilitakoak. Zuei deniei eskerrak gure-gurea den sagarraz pixka bat gehiago jakiten laguntzeagatik. Parapentetik jasotako ikusmira zabal hura zorrozteagatik, mila esker guztioi!

Gure adinduei entzundako esaldiak dira *“Gure atonak esan ohi zuan urtian bi saar sartu beer tziala”* edo *“Eskerrak sagar urtiai!”*... Egin nahia, patu onaren gaia omen, eta behin honetara ezker, sagarrari ere eskerrak emango dizkiogu atzetik jasotako onenarekin aurrera begira jarri gaituelako, elkarrekin gure-gurea den fruitu baten biziberritzean lanean. Badugu, gutxienez, datozen sagar urte askotarako gaia!!





Esku artean dugun liburuxka hau, *“Errezilgo Ibarbi elkarteak”*, erakunde publikoen laguntzarekin, elkarlanean aurrera eramandako ikerketa interesgarri bat dugu; hain zuzen ere, bertako sagarrak Errezilen izan duen eragin sozioekonomikoa aztertu berri dute.

Interesgarria ez ezik, lan hau berritzailea ere bada, landa-eremuan ez baitira ohikoak herri mailan ikerketa-prozedura zientifiko zorrotzak erabilia gai baten ezagutzan sakontzeko egindako azterketak. Ekarpen garrantzitsua iruditzen zaigu horregatik ikerketa hau, eta esku artean jartzen dugun informazio zehatz eta aberatsarekin, aurrera begirako egitasmoetarako eta elkarlanetarako oinarri sendoa jartzen duela uste dugu.

Emaitzak ikusita, bestalde, argi gelditu da Errezilgo herriaren eta Errezilgo sagarraren arteko lotura estua. Eta ez bakarrik sagarrak herriaren izena hartu zuelako. Horrez gain, inkestako datuek argi utzi baitute Errezilgo baserrietan Ibarbia sagarra dela, alde handiarekin gainera, sagar nagusia. Bertako paisaia fisiko eta afektiboaren funtsezko alderdi eta bertako ekonomiaren eta eguneroko jardunaren ezinbesteko osagai.

Gure aldetik, gure konpromisoa adierazi nahi diogu *“Ibarbi”* elkarteari, orain arte bezala Errezil sagarraren ikerkuntzan, berreskurapenean eta hedapenean elkarrekin lan egingo dugula. Hala nola, Errezilgo herritar orori, Errezil Sagarra promozionatu eta ezagutarazteko; Urola Gustagarri bezalako ekimenetan edota urtero egiten den Errezil sagarraren azoka berezian kolaboratuz.

ZORIONAK *“Ibarbi elkarteari”* egindako lanagatik!





Errezil sagarrak Errezilgo eta Gipuzkoako ekonomian izan duen eragin positiboa nabarmena da. Sagarra, oinarritzko produktu hartuta askotariko produktuak elaboratu dira ondoren gure merkatuetan saltzeko eta gure ekonomian zuzenki eragiteko. Honela, sagardoa, sagar dultzea, konpota eta azken urteetan sagar zuku naturala izan dira horietako produktu batzuk.

Sagarraren eta sagardoaren kultura ordea, harago doa eta azken urte hauetan hainbat ekimen sortu dira honen inguruan: bisita gidatuak, ibilbide tematikoak, azoka bereziak...

Honek guztiak, sagarrak gure gizartearekin izan duen harremana definitzen du, eta honen ondorioz sortu eta garatutako ondarea, paisaian daukagu.

Errezilen, *"IBARBI" Errezilgo Errezil sagarraren elkarteak* egindako lana, oso aberasgarria da, balorean jartzen duelako herriko ondarerik preziatuena "Errezil sagarra" edo Ibarbia-sagarra.

Aurten betetzen dira ehun urte Gipuzkoako Foru Aldundiak Pomologia batzorde berezia sortu zuela, erakunde honek sagarrari eman dion garrantziaren adierazle hobeagorik ez dago. Gipuzkoako Foru Aldunditik, ekimen hauek sustatzearen aldekoak izanik, gure babesa eskaini nahi diogu elkarteari, eta eragile ezberdinen arteko lankidetzan oinarriturik, aurrerantzean egiten diren ekintzekin ere bat egiteko.







-1-

**ERREZILGO SAGASTI  
ETA SAGARRONDOAK**




**Sagastiak eta sagarrondoak Errezilen. Oinarrizko zenbakiak**

Errezilen gaur egun:

**130**  
sagasti daude

**Horietako ia guztietan bada Ibarbia-sagarrondorik (124 sagastitan, sagasti guztien %95,4).**

A. GRAFIKOA: IBARBIA- SAGARRONDORIK BADUTEN EDO EZ DUTEN. ERREZILGO SAGASTIAK, 2015 (%)




Gaur egun Errezilen

**11.445**  
sagarrondo daude

Horietatik **6.459 Ibarbia-sagarrondoak** dira. Sagarrondo guztien erdiak baino gehiago (%56,4) Ibarbia dira. Gainerako barietateak ugari ditugu, 50 baino gehiago laster ikusiko dugun bezala. Datuek, ordea, ez dute zalantzarako tarterik uzten: Ibarbia-sagarra da nagusi Errezilgo sagastietan.

B. GRAFIKOA: ERREZILGO SAGARRONDOAK: IBARBIAK ETA GAINERAKOAK. ERREZILGO SAGARRONDOAK, 2015 (%)



Sagarrondoek betetako **azalera** Errezilen, elkarrizketatuen erantzunetan oinarritutako gure kalkuluen arabera honakoa da: sagarrondoek 61 hektarea inguru betetzen dituzte, 34 hektarea Ibarbia-sagarrondoek eta 27 hektarea gainerakoek.

Errezilgo sagarrondoak bertako biztanleriarekin harremanetan jarrita<sup>1</sup>:

**19,0** sagarrondo daude Errezilen biztanle bakoitzeko.

**10,7** Ibarbia-sagarrondo daude Errezilen biztanle bakoitzeko.

**LABURTUZ...**

Errezilen, 2015 urtean: **130** sagasti eta **11.445** sagarrondo

Horietatik **6.459** Ibarbia-sagarrondoak.

**34** hektarea betetzen dituzte Ibarbia-sagarrondoek.

Batez beste, **10,7** Ibarbia-sagarrondo daude Errezilen pertsonako.

**Datu hauek guztiek argi erakusten dute Errezil eta sagarraren arteko lotura estua orokorrean eta Ibarbia-sagarrarekikoa bereziki.**

<sup>1</sup> Iturria: Eustat. Biztanleen udal-errolaren estatistika. Iturri horren arabera, 601 biztanle zituen Errezilek 2015eko urtarrilaren 1ean.



**Ibarbia ez beste barietateak Errezilen**

Ibarbia-sagarraz gain, bestelako barietate ugari ere badugu Errezilen (50 baino gehiago zalantzarik gabe), bai sagardotarako baita mahairako ere. Gure elkarrizketatuek aipatu dutenez, gutxienez barietate hauetako sagarrondoak baditugu Errezilen:

**Sagardo sagarrak**

- Aretxabaleta
- Aritza
- Astarbea
- Bost kantoia
- Gazi handia
- Gazi gorria
- Geza gorria
- Geza zuria
- Gezamina
- Goienetxea
- Goikoetxea
- Gorostia
- Hiruizkina
- Ibia
- Ilarramendia
- Istil sagarra
- Manttonia
- Mendiola
- Merkalina
- Mokoia
- Sagar beltza
- Saltxipia
- Txalaka
- Txori sagarra
- Urdina
- Urdusa
- Urreztaia
- Urtebi handia
- Urtebi txikia



**Mahairako sagarrak**

- Bella Boskoop-a
- Cox-a
- Chantecler-a
- Elstar-a
- Errezil gorria\*
- Golden-a
- Granny Smith-a
- Jumbo-a
- Mesubia
- Muxugorria\*
- Pelestrina\*
- Fuji-a
- Reina reineta
- Aragon reineta
- Reineta gorria
- Gris Canada reineta
- Royal Gala
- Sagar gorria
- San Inazioa
- San Juana
- San Pedroa



\* Bertako sagarrak

**Mendiola** da Errezilgo baserri gehienetan Ibarbia-sagarraren atzetik daukaguna. Mahairako zein sagardotarako erabiltzen den sagar hau ere berta-bertakotzat dute eta asko maite dute errezildarrek.

**Sagasti handiak eta txikiak**

Aurrez aipatu diren 130 sagastietatik gehienak sagasti txikiak dira. Horrela, 50 sagarrondotara iristen ez diren 101 sagasti daude (sagasti guztien bi herenak baino gehiago, %70,8).

Baina badaude bestelako sagasti handiagoak ere Errezilen. 38 baserrian, 50 sagarrondo baino gehiago daude eta badira 9 baserri 250 sagarrondo baino gehiago dituztenak. Bederatzi baserri horien sagastietan daude Errezilgo sagarrondo erdiak baino gehiago (sagarrondo guztien %61,1).

1. TAULA: ERREZILGO SAGASTIAK ETA SAGARRONDOAK, SAGASTIETAKO SAGARRONDO KOPURUEN ARABERA, 2015

	Sagastiak		Sagarrondoak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
<b>Sagarrondo guztiak</b>				
1-9 sagarrondo	43	33,1	198	1,7
10-49 sagarrondo	49	37,7	1.161	10,1
50-249 sagarrondo	29	22,3	3.095	27,0
250 sagarrondotik gora	9	6,9	6.991	61,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>130</b>	<b>100,0</b>	<b>11.445</b>	<b>100,0</b>

Ibarbia-sagarrondoaren banaketa aztertuta ere ondorio bertsuetara iristen gara: Ibarbia-sagarrondo gutxidun sagasti asko daude. Sagarrondo gehienak, ordea, ez daude sagasti txiki horietan, sagasti handiagoetan baizik. Horrela, Ibarbia-sagarrondoak 250 baino gehiago dituzten baserriak hiru besterik ez dira, baina horietan daude Errezilgo Ibarbia-sagarrondoaren erdiak. Hiru baserri horiei gehituta 50 Ibarbia-sagarrondotik gora dituzten 20 baserriak, 23 baserri horietan dituzte Errezilgo bost Ibarbia-sagarrondotatik lau.


2. TAULA: IBARBIA-SAGARRONDOA DUTEN ERREZILGO SAGASTIAK, SAGASTIETAKO IBARBIA-SAGARRONDO KOPURUEN ARABERA, 2015

	Sagastiak		Sagarrondoak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
<b>Ibarbi-sagarrondoak</b>				
1-9 sagarrondo	54	43,5	216	3,3
10-49 sagarrondo	47	37,9	1.053	16,3
50-249 sagarrondo	20	16,1	1.990	30,8
250 sagarrondotik gora	3	2,4	3.200	49,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>124</b>	<b>100,0</b>	<b>6.459</b>	<b>100,0</b>






C. GRAFIKOA: ERREZILGO SAGASTIAK ETA IBARBIA-SAGARRONDOAK, SAGASTIETAKO IBARBIA-SAGARRONDO KOPURUEN ARABERAKO MULTZOETAN, 2015 (%)



**Sagasti ustiaketaren arduradunak. Sexua eta adina**

Sagar ustiaketan diharduten gehienak gizonezkoak dira (%85,0) eta emakumezkoak %15,0 dira. Batez besteko adina 54 urtekoa da. Dena den, denetarik dugu ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala.

D. GRAFIKOA: ERREZILGO SAGASTI USTIAKETAREN ARDURADUNAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. ERREZIL, 2015 (%)




Oinarria: galdera horri erantzun dioten 75 kasuak.

**Sagasti ekologikoak eta konbentzionalak**

Errezilgo bost sagastietatik lau (%80,0) ekologikoan ari da lanean, inkestari erantzun dioten sagargileen arabera beti ere. Sagargileen %11,3k dio beraien ez direla ekologikoan ari eta %8,8k ez daki ziur beraien sagastia lantzeko modua ekologikoarekin bat datorren edo ez.

D. GRAFIKOA: ERREZILGO SAGASTI USTIAKETAREN ARDURADUNAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. ERREZIL, 2015 (%)



**... eta interesik izango al zenukete ekologikora pasatzeko?**

Oinarria: galdera horri erantzun dioten 80 kasuak.  
 Oinarria: galdera horri erantzun dioten 16 kasuak.


Konbentzionaletan lan egiten dutenen artean edo zehatz euren ustiategia ekologikotzat jo ote daitekeen ez dakitenen artean, erdiek (%50,0) ez dute interesik ekologikora pasatzeko. Badira gutxi batzuk (%12,5) ekologikora pasa nahiko luketenak eta kopuru garrantzitsu batek (%37,5) ez du argi ekologikora pasa nahiko lukeen edo ez.

Aipagarria da, oro har, eredu ekologikoa nagusitzen dela Errezilgo sagasti txikiagoetan; sagasti handienetan bestelako ustiategi ereduak dituzte. Zehazki, 250 Ibarbia-sagarrondo baino gehiago dituzten Errezilgo baserrien artean bakarrak ere ez du lan egiten gaur egun ekologikoan (ekologikoan lan egiten duen Errezilgo ustiategirik handienak 200 Ibarbia-sagarrondo ditu).

**Testuingurua (I): bestelako jarduerak sagastiak dituzten Errezilgo baserrietan**

G. GRAFIKOA: BASERRIAK, EKOIZTEN DITUZTEN GAIEN ARABERA. ERREZILGO SAGASTIDUN BASERRIAK, 2015 (%)


**Barazkiak**



**Baratza, barazkiak**

Baserri gehien-gehienek lantzen dute baratza, etxerako kasurik gehienetan (%78,8) eta kanpoan saltzeko ere bai %6,3k. Aitzitik, baratzerik gabeko baserriak %15,0 dira.


**Babarrunak**



**Babarrunak**

la heren batek ez du babarrunik ekoizten (%30,2). Gehienek etxerako lantzen dituzte (%57,5) eta hamarretik batek (%10,0) saltzeko ere bai.


**Ardiak, arkumeak**



**Ardiak, arkumeak**

Aztertutako 3 baserritik batean badituzte ardiak. Etxerako bakarrik hazten dituzte %20,5ek eta kanpoan saltzen dituzte %12,9k.


**Esnetarako behiak**



**Esnetarako behiak**

Aztertutako hamar baserrietatik batean dituzte esne-behiak. Batzuek etxerako bakarrik (%5,1) eta kanpoan saltzeko beste batzuek (%5,1).


**Intxaurrak**



**Intxaurrak**

la etxe guztietan daukate intxaurreondoak (%92,5), eta horietako kopuru garrantzitsu batek (%23,8) etxerako ez ezik, kanpoan saltzeko ere biltzen ditu intxaurrak. Hauxe da (sagarra aparte utzita) elkarrizketatu gehiagok saltzen duena.


**Oilasko, arrautza**



**Oilaskoak eta arrautzak**

Bost baserrietatik lautan hazten dituzte oilo-oilaskoak. Gehienek etxerako (%70,5) eta batzuek kanpora saltzeko ere bai (%9,0).

**Txekorrak**



**Txekorrak**

Txekorrak hazten dituzte aztertutako hamar baserritik lautan. Batzuek etxerako (%10,3) eta beste askok kanpoan saltzeko ere bai (%29,4).

**Bestelakoak**

Aurrekoez gain, bestelako hauek ere aipatu dizkigute elkarrizketatuek: ogia, gazta eta zerriak.

- Ez dugu horrelakorik etxean egiten
- Bai, etxerako
- Bai, etxerako eta kanpoan saltzeko ere bai

Oinarria: galdera horri erantzun dioten 80 kasuak.






## Testuingurua (II): sagastiak dituzten Errezilgo baserriak, jardueraren arabera

Sagastiak dituzten Errezilgo baserrien ezaugarrietan sakontzeko asmoz, beraien jarduerari buruz galdetu diegu elkarrizketatuei. Euren erantzunen arabera, hamar baserritik bat baino gehiago (%11,7) baserritik bizi da erabat edo nagusiki. Heren batek (%32,6) jarduera mistoa du: baserritik eta kanpoko jardueretatik bizi dira. Baserrien sail nagusi batean (%44,2) nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotutako hainbat gai landu arren (baratza, animaliak...) etxerako bakarrik ekoizten dute. Azkenik, alor txiki batek dio euren etxean ez dela nekazaritzarekin lotutako inolako jarduerarik garatzen (%2,3).

F. GRAFIKOA: BASERRIEN SAILKAPENA EUREN JARDUERAREN ARABERA. ERREZILGO SAGASTIDUN BASERRIAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 77 kasuak.



-2-


## IBARBIA-SAGARRONDOEN EZAUGARRIAK



**Antzinasuna**

Errezilgo Ibarbia-sagarrondoena ia herena (%31,1) ez da 10 urtera iristen eta beste heren batek (%32,4) 10 eta 19 urte bitarte ditu. Gainerakoek 20 urte baino gehiago dituzte: %15,4k 20-29 urte, %7,9k 30-39 urte, %9,4k 40-49 urte eta %3,7k 50 urte baino gehiago.


H. GRAFIKOA: ERREZILGO IBARBIA-SAGARRONDOEN ADINA, 2015 (%)



**Txertaka motak**

Inkestan jasotako erantzunen arabera, patroia frankoa edo maisetza da nagusi Errezilen: hamar ibarbia-sagarrondotatik zazpik (%69,6) patroia frankoa dute. Laurdenak baino gehixeagok (%27,0) patroia ertaina (MM106 eta EM7), eta %3,4k patroia nanoa (EM9).


I. GRAFIKOA: ERREZILGO IBARBIA-SAGARRONDOEN TXERTAKAK, 2015 (%)



**Mentuen jatorria**

Bost sagarrondotatik lau (%78,7) etxeko mentuarekin txertatutakoak dira eta beste %2,9 Errezilgo beste baserri bateko mentuarekin. Aitzitik, Errezildik kanpo ekarritako mentua dute bost sagarrondotik ia batek (%18,4).

J. GRAFIKOA: ERREZILGO IBARBIA-SAGARRONDOEN MENTUAREN JATORRIA, 2015 (%)








## Sagarrondoek formazioa

Sagarrondoek erdiak baino gehiago (%56,4) baso forman landu dira eta beste kopuru esanguratsu bat (%30,1) erdiko ardatzean. Gutxiago dira palmetan edo bestelako formetan landutakoak (%2,5 eta %11,0 hurrenez hurren).

K. GRAFIKOA: ERREZILGO IBARBIA- SAGARRONDOEN FORMAIZIOA, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 54 kasuak.




**-3-**  
**SAGASTIEN  
ZAINKETA**

**Inausketa eta udako kimaketa**

Errezilen sagasti gehienak kimatzen dituzte neguan. Elkarrizketatuen %30,0ak adierazi du urtero kimatzen dituela sagastiak eta %43,8k urte batzuetan bai eta besteetan ez dituela kimatzen. Aitzitik, %26,3k erantzun du azken 5 urteotan behin ere ez dituela sagarrondoak kimatu.


L. GRAFIKOA: SAGARRONDOEN NEGUKO INAUSKETARAKO OHITURAK. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 80 kasuak.

Udarako kimaketari dagokionez, oso bestelako datuak eskaini dizkigu ikerketak: gehien-gehienek (%84,8) ez dute udarako kimaketarik egin, gutxienez azken 5 urteotan. Horien aurrean %7,6k urtero kimatzen ditu udaran sagarrondoak eta beste %7,6k batzuetan bai eta besteetan ez.

M. GRAFIKOA: SAGARRONDOAK UDARAN KIMATZEKO OHITURA. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)




Oinarria: galdera horri erantzun dioten 66 kasuak.

Udako zein neguko kimaketari dagokienez, alde esanguratsuak daude sagastiek dituzten sagarrondo kopuruaren arabera. Horrela, oro har, sagarrondo asko dituztenek gehiago kimatzen dituzte, eta sagarrondo gutxiago dituztenek gutxiago.

**Ongarritzea eta fitosanitarioen erabilera**

Errezilgo ekoizleen hiru laurdenak sagastiak ongarritzeko ohitura du, urtero-urtero (%32,9) edo urte batzuetan bai eta besteetan ez (%43,0). Lautik batek (%24,1) ez du azken 5 urteotan behin ere ongarritu sagastia.


N. GRAFIKOA: SAGARRONDOAK ONGARRITZEKO. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 79 kasuak.

Zer ongari erabiltzen dituzte errezildarrek sagarrondoetarako? Eta horiez aparte zein produktu fitosanitario erabiltzen dituzte? Inkestan jasotako erantzunen arabera simaurra da ongari nagusia: sagastia ongarritzen dutela adierazi dutenen %92,5ek simaurra erabiltzen du. Gainerako ongari eta sustantziak oso atzetik datoz: %14,9k karea erabiltzen du eta gainerako ongari eta sustantziak ez dira %10era iristen, ondoko grafikoan ikus daitekeen bezala.

N. GRAFIKOA: SAGARRONDOAK ONGARRITZEKO. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



(\*) Oharra: arraren kontrakoa eta salda bordelesa fitosanitarioak dira, ez ongariak.

Oinarria: galdera horri erantzun dioten 80 kasuak.

Inausketan bezala, ongarritzean ere sagarrondoak ongarritzen dituzte bereziki sagarrondo asko dituztenek eta sagarrondo gutxi dituztenek, gutxiago.




**Hainbat tresnen ezagutza eta erabilera**

Duela hamarkada batzuk Errezilgo baserrietan ezagunak ziren hainbat tresnari buruzko ezagupenari buruz ere galdetu diegu inkestatuei.

Erantzunak hauek izan dira:

- Kakoa oso tresna ezaguna da Errezilgo baserrietan. Are gehiago, inkestatu ia guztiek (%86,7) erabili izan dute inoiz eta oso gutxi dira zer den ez dakitenak (%8,4).
- Garbazta ere elkarriketatuen erdiek erabili izan dute inoiz (%50,6).
- Neurriotarra erabili izan dute hamar elkarriketatutatik lauk (%39,8).
- Aska aldiz, oso gutxi erabili izan dute (%6,0) eta elkarriketatuen bi herenek (%68,7) tresna hori zer den ere ez dakite.

P. GRAFIKOA: SAGARGINTZAREKIN LOTUTAKO HAINBAT TRESNA EZAGUTZEN DITUZTEN ETA ERABILI IZAN DITUZTEN. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 83 kasuak.



**ASKA:** sagarra jotzeko egurrezko ontzia. Sagarra jotzen da askan, mazoak (edo pi-soiak) erabilia.



**NEURRIOTARRA (edo NEURRIA):** sagarra eramateko ontzia; saskia baino handiagoa, zumitzez egina. Neurri jakin bat du.




**GARBAZTA:** egurrezko eskailera, inauste eta bilketa lanetarako erabiltzen den egurrezko eskailera.



**KAKOA:** egurrezko haga (atal zuzen, luze eta mehea) kakoduna. Inauste eta bilketa lanerako erabiltzen da adarrari eutsi eta fruitua eraisteko.





**-4-**

**UZTA ETA  
BILKETA**






**Dena edo gehiena biltzeko ohiturari buruz**

Aztertutako bi urteetan, 2012 eta 2013 urteetan, ekoizle gehienek sagastiko sagar gehienak bildu zituzten. 2012 urtean, baserritarren %88,6k eta 2013an aldiz %85,7k.

Aldiz, sagargileen kopuru txiki batek, ez du sagarrik bat ere bildu urte horietan (%7,6k 2012an eta %10,4k 2013an) sagarrik izan ez dutelako edo bildu gabe utzi dituztelako.

Horrez gain, %4aren inguruko kopuru txikiago batek sagar batzuk bildu izan ditu, baina bildu gabe ere dezente utzita.

Q. GRAFIKOA: URTEKO SAGAR UZTA BILDU AL ZUTEN 2012 ETA 2013 URTEETAN. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)




Oinarria: galdera horri erantzun dioten 79 kasuak.

**Uzta onena**

2009 eta 2013 bitarteko uzten artean beraien sagastian onena zein izan zen galdetu diegu elkarrizketatuei. Emaitzak ondoko grafikoan ikus daitezke. Urte horien artean 2012koa izan zen uztarik oparoena bostetik hirurentzat (%60,9). Beste %17,4rentzat, berriz, 2010ekoa izan zen urterik onena.

R. GRAFIKOA: UZTARIK ONENA, 2009 ETA 2013 BITARTEAN. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)




Oinarria: galdera horri erantzun dioten 69 kasuak.



### Lurretik bildutako sagarrak eta kolkora bildutakoak

Errezilgo baserritarrek lurretik bildu zituzten sagarrak gehienak, bi herenak inguru, 2012 eta 2013 urteetan. Horrela, kolkora bildutakoak %27,8 izan ziren 2012 urtean eta %39,7 2013an. Logikoa den bezala urte “onetan” gehiago biltzen dituzte, proportzioan, lurretik eta urte “txarrak” direnean, berriz, gehiago biltzen da (proportzioan orain ere) kolkora.

S. GRAFIKOA: ERREZILGO BASERRITARREK SAGARRAK LURRETIK EDO KOLKORA BILDU ZITUZTEN 2012 ETA 2013 URTEETAN (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 61 kasuak.

### 2012 eta 2013ko uztak kilotan

Elkarrizketatuen erantzunetan oinarrituta landu ditugun kalkuluaren arabera:

- **321.000 kilo sagar bildu zituzten Errezilgo baserritarrek 2012 urtean.**
- **85.000 kilo sagar bildu zituzten Errezilgo baserritarrek 2013 urtean.**


Datuek aldakortasun handia erakusten digute urtetik urtera, urte “onetatik” urte txarretara eta alderantziz. Aztertutako bi urteak aintzat hartuta, 2012ko uztak ia laukoiztu egin zuen 2013koa.

### Errendimendua (kg/ha)

Aزتutako bi urteetako uztak ekoizpenean dauden hektareekin harremanetan jarrita, honakoa litzateke Errezilgo Ibarbia-sagastien errendimendua:

- **3.448 kilo bildu ziren hektareako 2013 urte “txarrean”.**
- **13.032 kilo bildu ziren hektareako 2012 urte “onean”.**

Honakoa litzateke, beraz, batez besteko errendimendua hektareako: 8.240 kilo hektareako, 2012 eta 2013 urteak aintzat hartuta.





**Balio ekonomikoaren kalkulua**

Nola baloratu daiteke ekonomikoki 2012 eta 2013 urteetan Errezilen ekoiztutako ibarbia-sagar guztia? Gure kalkuluen emaitzak ondorengo taulan bildu ditugu.

3. TAULA: ERREZILGO SAGASTIEN EKOIZPENAREN BALORAZIO EKONOMIKOA 2012 ETA 2013 URTEETARAKO

	Bildutako sagarrak		Prezio unitarioa kiloko		Balio ekonomikoaren kalkulua		
	Lurretik (Kg.)	Kolkora (Kg.)	Sagardotarako (€)	Mahairako (€)	Sagardotarako (€)	Mahairako (€)	GUZTIRA (€)
<b>2012 urtean</b>	231.729	89.020	0,24	1,70	55.615	151.334	<b>206.949</b>
<b>2013 urtean</b>	51.133	33.729	0,24	1,70	12.272	57.340	<b>69.612</b>
<b>Batez beste</b>	<b>141.431</b>	<b>61.375</b>	<b>0,24</b>	<b>1,70</b>	<b>33.944</b>	<b>104.337</b>	<b>138.280</b>

Ikus daitekeen bezala, Ibarbia-sagarrak ia 70.000 euro mugitu zituen 2013 urte txarrean eta 207.000 euro 2012 onean.



**-5-**  
**ELABORAZIOA  
ETA SALMENTA**




**Elaborazioa**

Sagarrekin etxean egiten duten elaborazioari buruz galdetu diegu elkarrizketatuei. Erantzunen arabera, etxe gehien-gehienetan egiten dute zer edo zer sagarrarekin: sagar-konpota %85,9k, dultzea %78,2 k, marmelada %46,2k, sagardoa %39,7k eta muztioa %7,7k.

U. GRAFIKOA: SAGARREKIN EGINDAKO ELABORAZIOA. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)


**Sagardoa**



**Sagardoa**

Bostetik bi etxetan egiten dute sagardoa, gehien-gehienetan etxerako bakarrik.


**Muztioa**



**Muztioa**

Etxe gutxitan egiten dute muztioa (%7,7), etxerako bakarrik gehienetan.


**Dultzea**



**Dultzea**

Etxe askotan (%78,2), egiten dute dultzea, etxerako gehienetan, baina alor batek (%10,3) saltzeko ere egiten du.

**Marmelada**




**Marmelada**

Etxe erdietan egiten dute marmelada, etxerako gehienetan, baina alor txiki batek (%5,1) saltzeko ere egiten du.



**Konpota**



**Konpota**

Etxe gehienetan (%85,9), egiten dute konpota, etxerako ia denek, baina gutxi batzuek (%3,8) saltzeko ere egiten dute.



- Ez
- Bai
- Kanpoan saltzeko ere bai



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 78 kasuak.



**Salmenta**


Inkestan jasotako erantzunen arabera, erdiek baino gehiagok (%58,1) saldu ohi dute sagarra. Gainerakoek (%41,9) etxerako bakarrik biltzen dituzte sagarrak.

T. GRAFIKOA: SAGARRAK SALDU AL DITUZTEN AZKEN 2 URTEOTAN ETA NORI SALDU DIOTEN. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Sagarra saltzen dutenen artean, gehienek (%71,1) sagardotegiren bati saltzen diete. Dezente dira, halaber, kontsumitzaileari zuzenean saltzen dietenak, azokan edo etxetik bertatik (%33,3). Horiez gain, badira maiorista bati edo bitartekari bati saltzen dietenak (%15,6) eta badira dendaren bati saltzen dietenak ere (%4,4).

Oinarria: galdera horri erantzun dioten 74 kasuak.



**-6-**  
**ETORKIZUNARI  
 BEGIRA; ERREZILGO  
 IBARBIA-SAGARRA  
 BULTZATZEKO BIDEEN ETA  
 ELKARTEAREN  
 INGURUAN**






**Sagastien etorkizuna, sagargileen iritziak**

Oro har etorkizunari begira baikor azaltzen dira sagargile gehienak. Horrela, 10 urte barru euren ustez etxeko sagastia nola egongo den galdetuta, euren sagastiak zainduta eta ekoizten jarraituko duela erantzun dute lautik hiruk. %50,0ek esan du sagastiak 10 urte barru zainduta eta ekoizten jarraituko duela uste duela eta beste %15,0 bat ziur da horrekin. Are gehiago, beste %10,0 batek dio mantendu ez ezik, orain baino sagarrondo gehiago izango dituztela pentsatzen duela. Horien guztien aurrean, gutxiago dira (elkarrizketatuen laurdena) hamar urteren buruan euren sagastiak zainduta eta ekoizpenean egongo direla uste ez dutenak (%20,0) edo horretaz ziur daudenak (%5,0).


V. GRAFIKOA: ETXEKO SAGASTIAREN ETORKIZUNARI BURUZKO IRITZIA: 10 URTE BARRU SAGASTIAK ZAINDUTA ETA EKOIZTEN JARRAITUKO AL DUEN. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 80 kasuak.

Galdera bera baina 10 urteko epean beharrean, 40 urtekoan eginez gero, noski, zailagoa egiten zaie elkarrizketatuei erantzuna ematea. Dena den, ikuspegi luze horretan ere gehiago dira euren sagastiaren etorkizunaz baikor azaltzen direnak ikuspegi ezkorra dutenak baino. Hori bai, erantzun positiboak apaldu egiten dira 10 urteko ikuspegiarekin alderatuta.

W. GRAFIKOA: ETXEKO SAGASTIAREN ETORKIZUNARI BURUZKO IRITZIA: 40 URTE BARRU SAGASTIAK ZAINDUTA ETA EKOIZTEN JARRAITUKO AL DUEN. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 74 kasuak.

**Errezilgo Ibarbia-sagarra bultzatzeko premien inguruan**


Zein bide hartu beharko lirateke Errezilgo Ibarbia-sagarra bultzatzeko? Gure inkestan, zehazki, hiru behar posibleen inguruko iritziaz galdetu diegu elkarrizketatuei.

**Ekoizleei formazio tekniko** emateko premia handia edo dezenteko premia ikusten dute bost sagargileetatik lauk (%31,1ek dio formazio premia handia dagoela eta %50,8k dezentekoa). Aitzitik, bostetik batek ez du horrelako premiarik ikusten: %11,5en ustez ez dago horretarako premia handirik eta %6,6k dio ez dagoela bat ere premiarik.






X. GRAFIKOA: EKOIZLEEI FORMAIZIO TEKNIKOA EMATEAREN PREMIARI BURUZKO IRITZIAK. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 61 kasuak.

**Sagarrak egoki merkaturatzeko bitartekoak lantzea** premiazkoa da elkarrizketatu ia guztientzat. Horrela, %39,1ek dio premia handia dagoela horretarako eta %53,1ek dezentekoa. Horien aurrean, %7,8k bakarrik esan du horretarako premia ez dela oso handia eta inork ez du erantzun merkaturatzea lantzeko bat ere premiarik ez dagoela.


Y. GRAFIKOA: SAGARRAK EGOKI MERKATURATZEKO BITARTEKOAK LANTZEAREN PREMIARI BURUZKO IRITZIAK. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 64 kasuak.

Premia handia dago, elkarrizketatuen ustez beti ere, **Errezilgo sagarra babestuko duen marka** sortzeko: premia handia dago %44,6aren ustez eta dezentekoa %50,8aren iritziz. Aitzitik, %4,6k bakarrik dio premia handirik ez dagoela eta inork ez du erantzun bat ere premiarik ez dagoenik.

Z. GRAFIKOA: ERREZILGO SAGARRA BABESTUKO DUEN MARKA SORTZEKO PREMIARI BURUZKO IRITZIAK. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 65 kasuak.

Premia horiez gain, beste zein premia ikusten dituzten galdetu diegu elkarrizketatuei. Askok ez du aipatu hiru premia nagusi horiez gain bestelakorik. Hona hemen hitzez hitz elkarrizketatuek idatzi dizkiguten proposamen eta ideiak:


- *Baserri handiak elkartu kooperatiban.*
- *Belaunaldi gazteei ezagutaraztea eta estimatzen ikas dezaten zeren gazteek zer den ere ez dakite.*
- *Diru laguntza on bat ematea.*
- *Errezil sagarraren inguruko gune informatibo bat eta salmenta puntu bat beharko litzateke herrian.*
- *Frankoak bultzatu behar dira, horiek direlako betiko sagarrondoak eta bertako jatorrizkoa. Iraunkorrak dira eta zaintza handia eskatzen ez dutenak. Baina fruitua ematen berandu hasten da eta tarte horretarako laguntzak eman beharko lirateke.*
- *Hartu den egitasmoa gauzatu, ideiak badaude eta horiek landu behar dira.*
- *Instituzioetako laguntza.*
- *Komunikazio kanpaina zabal eta egokia. Errezil-sagar eguna indartu eta egokitu. Turismoarekin loturak egin.*
- *Merkatu zuzeneko ekoizpena, bitartekaririk gabekoa.*



**Ibarbi elkarteari buruz**




Herrian Errezilgo Ibarbia-sagarraren egoera aztertzeko eta hobebideak lantzeko asmoz elkartea sortu dugu hainbat lagunek. Elkarteari buruz herritarrek izan zezaketen iritziaren berri jakiteko ere erabili nahi izan dugu inkesta. Hona hemen gaiari buruz egindako galdera eta elkarrizketatuen erantzunak.




AA. GRAFIKOA: "IBARBI" ELKARTEARI BURUZKO IRITZIAK ETA ELKARTEAREN INFORMAZIOA JASO NAHI AL DUTEN. ERREZILGO SAGARGILEAK, 2015 (%)

Herriko ibarbia-sagarra bultzatzeko "IBARBI" Errezilgo Errezil Sagarraren elkartea sortu dugu Errezilgo hainbat lagunek. Zure ustez bazegoen errezildarrak bildu eta horrelako zerbait egiteko premiarik edo ez?



Oinarria: galdera horri erantzun dioten 73 kasuak.

Elkarteak egingo ditueni buruz informatua egon nahi al duzu?



Herritarren erantzunek ez dute zalantzarako tarterik uzten: "Ibarbi" elkartea komenigarritzat edo oso premiazkotzat jotzen dute ia elkarrizketatu guztiek: %23,3arentzat horrelako elkarre baten premia handia zegoen Errezilen eta %71,2rentzat komenigarria zen. Aitzitik, bat ere premiarik ez zegoela %1,4k bakarrik erantzun du eta beste %4,1ek ez zegoela premia handirik.

Elkarrearen sorrerak herrian izandako harrera onaren erakusle azken datu bat: Ibarbi elkarteak egingo ditueni buruzko informaziorik jaso nahi ote duten galdetuta, gehien-gehienek (%92,1) baietz erantzun dute.



A still life composition on a dark surface. In the foreground, an open notebook with a pen is visible. The left page is blank, while the right page has some faint, illegible handwriting. Behind the notebook, a clear glass filled with water sits to the left of a single yellow apple. The background is dark and out of focus.

**METODOZKO  
OHARRAK**

### Ikerketa teknika

Elkarrizketa autoaplikatuaren teknika erabili dugu ikerketa honetarako. Galde-sortak baserri baserri banatu ditugu eta etxe bakoitzean sagastiaz arduratzen zenak bete izan du gehienetan. Ondoren galde-sortak jaso ditugu, erantzunak informatizatu eta ustiaketa estatistikoari ekin diogu. Orokorrean erabili dugun prozedura hori izan bada ere, hainbat kasutan, elkarrizketa aurrez aurre egin dugu, elkarrizketatuari galderak eginez eta erantzunak galde-sortan geuk jasoz.

### Galde-sorta

Galde-sorta egituratu eta aurrekodedua erabili dugu. Galdera gehienak itxiak izan dira, baina baziren galdera irekiak ere, galde-sortan ikus daitekeen bezala (ikus erabilitako galde-sorta ondorengo orrialdetan).

### Landa lana

Baserritarrekin harremanetan jartzea, galde-sorta helaraztea eta jasotzea eta hainbat kasutan elkarrizketak aurrez aurre egitea lbarbi elkarteko hainbat kidek eta laguntzailek egin dute bolondreski. Lan horietan aritu dira Jose Antonio Labaka, Bittor Astigarraga, Susana Gonzalez, Iosu Galarraga, Jone Irulegi, Gorka Tolosa, Joxeramon Agirre, Arrate Otaegi, Iñaki Aiertza, Maria Jesus Salsamendi eta Ibai Arakistain.

Landa lanaren datak: inkesta 2014 eta 2015 bitartean egin da. Gehienak 2014ko maiatza eta azaroa bitartean egin bagenituen ere, badira 2015ean zehar jasotakoak ere. Informazio bilketa 2015era arte luzatu denez ikerlanaren zein taula eta grafikoen izenburuan 2015 urtea aipatzen dugu. Kontuan izan ordea, datuak, berez 2014-2015 biurtekoak direla.

### Ikerketaren unibertsoa eta lagina

Gure ikerketaren unibertsoa osatu dute sagarrondoak duten Errezilgo baserri guztiek. Ondorioz, landa lanerako gure helburua izan da Errezilen sagarrondoak zituzten baserri ahalik eta gehienetara iristea. Guztira sagarrondoak dituzten 86 baserriren informazio zehatza eskuratu dugu.

Gure kalkuluen arabera, Errezilen 130 baserri dira sagarrondoak badituztenak. Guztietara ez, baina horietako gehienetara iritsi ahal izan dugu. Zehazki, sagastia baduten baserri guztien bi herenek (%66,2) erantzun dio inkestari. Kontuan izan behar da, gainera, sagasti handienak dituzten baserrietara iristeko ahalegin berezia egin dugula eta oso gutxi izango direla 50 sagarrondo baino gehiago izan eta gure inkestan parte hartu ez dutenak. Horrela bada, kalitate handiko lagina dugu ikertzen ari garen gaia ondo aztertzeko.

Oso harrera ona izan dugu baserrietan. Azpimarratzekoa da, jo izan dugun baserri ia guztiek parte hartu dutela ikerketan. Baserri bakarra izan da inkesta egin nahi izan ez duena.

### Informatizazioa, arazketa eta ustiaketa estatistikoa

Behin galde-sortak jasota, informazioa informatizatzeari, arazteari eta estatistikoki ustiatzeari ekin diogu. Erantzunak informatizatzeko lana ere lbarbi elkarteko bi kidek egin dute bolondreski: Iosu Galarraga eta Ana Aizpuru.

### Kalkuluak, estimazioak, interpretazioak eta txostengintza

Inkestarekin iritsi ez garen baserrietarako, kalkuluak egin ditugu bertako sagarrondo kopuruak ere gure ikerketan aintzat hartzeko. Horretarako, Errezilgo baserrietako sagarrondoan berri eman ahal ziguten herritarrei galdetu diegu zuzenean.

Ustiaketa estatistikorako Excel eta SPSS programa informatikoak erabili ditugu. Datuak interpretatzerakoan oso baliagarriak izan zaizkigu Aitor Etxeaundia frutagintzako teknikariaren aholku eta iradokizunak. Testua Josune Zabalak zuzendu du.



**GALDE-SORTA**



## SAGARRA ERREZILEN IKERKETA, 2014-2015

Kodea:

### Aurkezpena

Errezilgo hainbat herritarrek **"IBARBI" Errezilgo Errezil Sagarraren elkarte**a sortu dugu, bertako Ibarbi sagarrari bultzada bat emateko asmoz. Gure lehenengo lana, sagarra Errezilen zertan den ezagutzea izango da. Horretarako, Errezilgo baserri guztietara jo nahi dugu eta bertan galdetu. Bertan jasotako informazioa aztertu egingo dugu, sagarraren egoera zein den ezagutzeko eta aurrera begira zer egin daitekeen pentsatzeko. Aldez aurretik, eskerrik asko zuen laguntzagatik.

### Ohar garrantzitsua:

Galdera batzuetan zenbakiak eskatzen dira (adibidez, zenbat sagarrondo dituzuen edo zenbat kilo bildu dituzuen). Zehatz-mehatz zenbakia ez badakizu, gutxi gora beherako kopurua eman. Horrekin nahikoa izango dugu.

<p><b>Baserriaren edo etxaldearen identifikazio datuak</b></p> <p>Auzoa edo bailara: _____</p> <p>Baserriaren izena (eta aldea bi bizitza edo gehiagokoa baldin bada): _____</p> <p>Abizena(k): _____</p>	<p><b>Informatzailearen datuak</b></p> <p><input type="checkbox"/> Etxeko norbait da. Kasu horretan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Izena: _____</li> <li>• Telefonoa: _____</li> <li>• Adina (zenbat urte): _____</li> </ul> <p><input type="checkbox"/> Kanpoko informatzaile bat da. Nor (izena): _____</p>
---	--

Data (elkarrizketa noiz egin den): \_\_\_\_\_

### Sagarrari buruzko galderak

#### 1. Zenbat sagarrondo dituzue?

	Azalera (ha)	Sagarrondoak (zenbat arbola)
Sagarrondoak guztira		
Horietatik, zenbat dira Ibarbi sagarrak?		

#### 2. Ibarbi sagarrez gain, zein beste barietate dituzue? Idatzi mesedez klase bakoitzetik zenbat arbola dituzuen.

Barietatea	Sagarrondoak (zenbat arbola)

### Ibarbi sagarrari buruzkoak

#### 3. Hemendik aurrera, zuen sailetan dituzuen Ibarbi sagarrei buruz galdetuko dizut beti. Landatu zirenetik zenbat urte pasa dira? Zehaztu mesedez ondorengo taulan noiz jarritakoak diren zuen sagarrondoak.

	Sagarrondoak (zenbat arbola)
Aldatu berriak (duela 0-2 urte)	
3-4 urte	
5-9 urte	
10-19 urte	
20-29 urte	
30-39 urte	
40-49 urte	
50-59 urte	
60-69 urte	
70-79 urte	
80-89 urte	
90-99 urte	
100 urte edo gehiago	

#### 4. Nolako ipurdia dute zuen sagarrondoek?

	Sagarrondoak (zenbat arbola)
Enanoa	
Erdi-enanoa	
Frankoa	

#### 5. Eta nongo mentua dute?

	Sagarrondoak (zenbat arbola)
Etxekoa	
Errezilgoa baina ez etxekoa	
Errezil kanpotik ekarritakoa	

... Nondik?

**6. Zein formatan daude landatuta?**

	Sagarrondoak (zenbat arbola)
Basoan ("en vaso")	
Palmeta	
Erdiko ardatza ("eje central")	
Beste formaren bat	

**Sagastiaren zainketa-lanak**

**7. Ibarbi sagarrondoei zein inausketa egiten diozuen jakin nahiko genuke. Hasteko, neguko kimaketarik egiten al diezue?**

1	Urtero-urtero.
2	Urte batzutan bai, besteetan ez
3	Azken 5 urteotan ez ditugu neguan kimatu

**8. Eta udako kimaketa egiten al diezue?**

1	Urtero-urtero.
2	Urte batzutan bai, besteetan ez
3	Azken 5 urteotan ez ditugu udaran kimatu

**9. Ongarritzen al dituzue sagarrondoak?**

1	Urtero-urtero.
2	Urte batzutan bai, besteetan ez
3	Azken 5 urteotan ez ditugu ongarritu

**10. Zein ongari erabiltzen duzue? ("x" batekin markatu erabiltzen dituzuenak, bat baino gehiago badira ere bai)**

1	Simaurra
2	Nitrogenoa
3	Karea
4	NPK
5	Sulfatoa
6	Bordeles salda
7	Arran kontrakoa
8	Bestelako ongari kimikoak
9	Bestelako ongari ekologikoak

**11. Zuen ustiaketa ekologikoa dela esango al zenuke?**

1	Bai
2	Ez
3	Ez dakit

**12. Eta Ekologikoa ez baldin bada, interesik izango al zenukete ekologikora pasatzeko?**

1	Bai
2	Ez
3	Ez dakit

**13. Jarraian, sagarrarekin zerikusia duten hainbat tresna aipatuko dizkizut. Esadazu, mesedez, horietako bakoitzerako zuk ezagutu eta inoiz erabili izan dituzun.**

	Ez dakit zer den	Badakit zer den baina ez dut inoiz erabili	Erabili izan dut
Kakoa	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>
Garbazta / Garrazta	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>
Neurri otarra	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>
Aska	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>
Pixoia / Buzoia	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>

**Sagarren bilketa eta erabilpena**

**14. Azken urtean (2013an), zuen etxeko ibarbi sagar gehienak bildu al dituzue?**

1	Gehientsuenak bildu ditugu
2	Batzuk bildu ditugu, baina bildu gabe ere dezente utzi ditugu
3	Ez dugu (ia) alerik bildu.

**15. Aurreko urtean, berriz, 2012an, gehienak bildu al zenituzten?**

1	Gehientsuenak bildu genituen
2	Batzuk bildu genituen, baina bildu gabe ere dezente utzi genituen
3	Ez genuen (ia) alerik bildu

**16. Zehaztu, mesedez, hurrengo taulan 2013an eta 2012an bildu zenituzten sagarrak (kiloak).**

	Iaz (2013) zenbat kg	Aurreko urtean (2012) zenbat kg
Zenbat sagar bildu dituzue / zenituzten guztira? Zenbat kilo?		
Horietatik...		
Zenbat lurretik?		
Zenbat arbolatik?		

**17. Azken bost urteak kontutan hartuta, zein urtetan bildu zenuten sagarrak gehien?**

1	2013an
2	2012an
3	2011n
4	2010ean
5	2009an

**18. Gehien bildu zenuten urte horretan, zenbat sagar bildu dituzue / zenituzten guztira? Zenbat kilo? \_\_\_\_\_**

Horietatik...	Kiloak
Zenbat lurretik?	
Zenbat arbolatik?	

**19. Etxean sagarrarekin honakoak egiten al dituzue?**

	Ez dugu horrelakorik etxean egiten	Bai, etxerako	Bai, etxerako eta kanpoan saltzeko ere bai
Sagardoa	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>
Muztoa	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>
Mermelada	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>
Dultzea	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>
Konpota	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>



**20. Azken bi urteotan sagarrak saldu al dituzue?**

1	Bai
2	Ez (joan 22 galderara)

**21. Nori saldu izan dizkiozue sagarrak?**

1	Zuzenean erosleari (azokan edo etxetik bertatik)
2	Denda bati
3	Maiorista bati edo bitartekari bati
4	Sagardotarako → Nori? _____

**Baserriaz orokorrean**

**22. Sagarrak gain, ze beste produktu ekoizten duzue baserrian? Esaguzu mesedez holakorik egiten al den zuenean**

	Ez dugu horrelakorik etxean egiten	Bai, etxerako	Bai, etxerako eta kanpoan saltzeko ere bai	Bai, kanpoan saltzeko
Barazkiak-baratza	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>
Babarruna	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>
Intxaurra	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>
Oiloak-oilaskoak-arrautzak	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>
Ardiak	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>
Behiak esnetarako	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>
Txekorrak haragitarako	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>

Horiez gain, ba al da kanpoan saltzeko ekoizten duzuen beste produkturik? Zein? \_\_\_\_\_

**23. Nolako baserria esango zenukete dela zuena?**

1	Gure etxean ez da nekazaritzarekin lotutako inolako jarduerarik.
2	Lantzen ditugu baratza edota animalia batzuk, baina etxerako bakarrik.
3	Jarduera mixtoa dugu: baserritik eta kanpoko jardueretatik bizi gara.
4	Baserritik bizi gara nagusiki

**Sagastiaren etorkizunari begira**

**24. Zuen etxean nor arduratzen da gehienbat sagastiaz gaur egun?**

1	Galdesortari erantzuten ari den pertsona.
2	Beste norbait. Kasu horretan, esan mesedez Izena: _____ Adina (zenbat urte): _____

**25. Aurrera begira, zure ustez zuen etxeko sagastiak 10 urte barru zainduta eta ekoizten jarraituko duela esango al zenuke?**

1	Ziur ezetz
2	Uste dut ezetz
3	Baietz uste dut
4	Ziur baietz
5	Mantendu ez ezik, orain baino sagarrondo gehiago izango ditugula esango nuke

**26. Eta zaila bada ere, nola uste duzu izango direla kontuak 40 urte barru, indarrean jarraituko al dute zuen sagarrondoek?**

1	Ziur ezetz
2	Uste dut ezetz
3	Baietz uste dut
4	Ziur baietz
5	Mantendu ez ezik, orain baino sagarrondo gehiago izango ditugula esango nuke

**Zailtasunak, beharrak ...**

**27. Zure ustez Errezilgo Ibarbi sagarra bultzatzeko zein bide landu beharko lirateke.**

	Bat ere premiarik ez	Premia handirik ez	Dezenteko premia	Premia handia
Formazio teknikoa eman ekoizleei	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>
Sagarrak egoki merkaturatzeko bitartekoak landu	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>
Errezilgo sagarra babestuko duen marka sortu	<input type="text" value="1"/>	<input type="text" value="2"/>	<input type="text" value="3"/>	<input type="text" value="4"/>

**28. Ibarbi sagarra bultzatzeko beste jarduera edo lan ildorik bururatzen al zaizu? Azaldu mesedez.**

**Elkarteari buruz**

**29. Dakizun bezala, herriko Ibarbi sagarra bultzatzeko "IBARBI" Errezilgo Errezil Sagarraren elkarteak sortu dugu Errezilgo hainbat lagunek. Zure ustez bazegoen errezildarrak bildu eta horrelako zerbait egiteko premiarik edo ez?**

1	Ez zegoen bat ere premiarik
2	Ez zegoen premia handirik
3	Komenigarria zen
4	Premia handia zegoen

**Bukatu dugu. Hitz egin ditugun gaiei buruz besterik esan nahi baduzu, orain duzu aukera.**

**30. Elkarteak egingo ditueni buruz informatua egon nahi al duzu?**

1	Bai
2	Ez

**Eskerrik asko. Zuk emandako informazioa oso baliagarria izango zaigu, egoeraren argazkia egiteko. Erantzun guztiak jasotakoan, emaitzak aztertu egingo ditugu eta txostena parte hartu duzuen etxe guztietara helaraziko dugu. Eskerrik asko berriro eta laster arte.**



**PARTE HARTU DUTEN  
BASERRIAK**



**Parte hartu duten baserriak<sup>1</sup>:**

**Arzallus bailaran:**

Albitzu  
Armendia  
Artañola  
Arzallus  
Bastarretxe  
Erkizia goikoa

Enataritz  
Errekondo goikoa  
Estrada zaharra  
Etxe haundia behekoa  
Gorostiola  
Gurutzeaga  
Ibartzabal

Iraola  
Isagasti  
Landarrain [2]  
Landarrain errota  
Larrate  
Loidi saletxea  
Loidi azpikoa  
Mendiola azpikoa  
Mendiola goikoa  
Telleria  
Trekua saletxea  
Umansoro  
Zabaleta  
Zuazketa

**Ezama bailaran:**

Agirre goikoa [2]  
Aranguren  
Balda  
Basabe barrena [2]  
Belamendia  
Ezama goena  
Ezamanea  
Ezurtza (Ezuitza)  
Idoiaga  
Lizarreta  
Lizarreta errota  
Loiate azpikoa  
Loiate goikoa  
Mugarrieta  
Munain  
Ozkarte  
Portugal  
Urdalleta  
Zumeta

**Ibarbia bailaran:**

Antzelus  
Argarate  
Artauntza  
Arxiola  
Buztinzuri  
Eritzeta  
Galarraga  
Galarraga barrena  
Galarraga goena  
Galarraga saletxea  
Goiko Borda  
Gorotzena  
Ibarbia barrena  
Ibarbia goena  
Iraola zaharra

**Lete bailaran:**

Abieta barrena  
Abieta goena

Agirretxe  
Añoia  
Arabe  
Argindegi  
Aritzeta goikoa  
Arzuriaga  
Basabil  
Berriki  
Egurbide  
Eguzkitza  
Ibarguren, Goenaga  
Ibarguren, "Keixeta"  
Irure haruzkoa  
Irure haundia  
Irure honuzkoa  
Izagirre  
Otegitxo  
Zabala [2]

**Txillarramendi-Etumetan:**

Muno haundi behekoa  
Antxisturbia behekoa

**Zuen laguntza gabe ezin izango genuen lan hau egin.  
Eskerrik asko guztioi, bene-benetan.**

<sup>1</sup> Zerrendakoez gain, eta sagarrondorik ez izan arren, inkesta bete dute honako hiru baserritakoek ere: Muskaga saletxe, Aritzarte haruzkoa eta Zabaleta.

Izendegiaren iturria: *Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa: Edificios de Guipúzcoa 1860.*





# IBARBIA-SAGARRA ERREZILEN

**HERRIKO BASERRIETAN ERREZIL-SAGARRARI BURUZ  
2015EAN EGINDAKO INKESTAREN EMAITZAK**

Iñaki Iurrebaso Biteri



ERREZILGO UDALA



ERREZILGO  
ERREZIL-SAGARRAREN  
ELKARTEA  
IBARBIA-SAGARRA



**UROLA KOSTA**  
UROLA KOSTAKO LANDA GARAPENeko ELKARTEA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**elogeunea**  
kutxa FUNDAZIOA